que se encuentra en posesión de la documentación que así lo acredita, quedando a disposición del Gobierno Vasco para su presentación y para la comprobación, el control y la inspección posterior que se estimen oportunos.

_____, _____ de _____ de _____

La persona solicitante o su representante legal

Firma: _____

Información básica sobre protección de datos:

Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: Ordenación del sector pesquero.

Responsable: Dirección de Pesca y Acuicultura, Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.

Finalidad: Constancia publica de las licencias y embarcaciones de pesca y expedientes sancionadores. Registro de flota pesquera, venta de productos pesqueros, inspección y planificación.

Legitimación: Tratamiento necesario para el cumplimiento de obligaciones legales aplicables.

Destinatarios: Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, Servicio de Estadísticas Oficiales de Agricultura y Pesca (SEAS) y organismos con competencias en la materia.

Derechos: Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.

Información adicional: Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/001100-cap2-es.shtml

Normativa: Reglamento General de Protección de Datos (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES) Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

ID: 0011

1. zirriborroa, 2023ko uztailaren 5ekoa

.../2023 DEKRETU-PROIEKTUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ANGULAREN ARRANTZA PROFESIONALA ARAUTZEKOA ETA ANGULA-ARRANTZALE PROFESIONALEN ERREGISTROA SORTZEKOA.

Arrantza politika komunitarioaren helburu orokorra hau bermatzea da: uretako baliabide bizien ustiapenean ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-baldintza jasangarriak egon daitezela.

Arrantza-politika erkidearen arabera arrantza-baliabideak kontserbatzeari eta modu jasangarrian ustiatzeari buruzko Kontseiluaren 2002ko abenduaren 20ko 2371/2002 (EE) Erregelamenduak kontrol-sistema komunitario bat ezartzeko betebeharra aurreikusi zuen, arrantza-sektore osoari aplikatzeko modukoa, hartan aurreikusitako arrantza- eta akuikultura-araubide komunitarioa lortze aldera. Bada, Arrantza Politika Erkideari buruzko 1380/2013 (EB) Erregelamenduak betebehar horri eutsi dio, eta xedatu du kontserbazio-neurriak hartu behar direla irizpen zientifiko, tekniko eta ekonomikoak kontuan hartuta, eta, bereziki, hala badagokio, Arrantzaren Batzorde Zientifiko, Tekniko eta Ekonomikoaren txostenenak (STECF), konsultarako beste zenbait organismoren txostenak eta konsulta-batzordeen aholkuak.

Bestalde, 2018/973 (EB) Erregelamenduaren 7. artikuluarekin eta 2019/472 (EB) Erregelamenduaren 8. artikuluarekin bat etorri, irizpen zientifikoen arabera erregelamendu horren 1.1 artikuluan adierazitako edozein populaziotako ugaltze-populazioaren biomasa txikiagoa bada biomasaren mugako erreferentzia-puntua baino, neurri zuzentzaile osagarriak hartu beharko dira ukitutako populazioa berriro ere maila egokietara heltzen dela bermatzeko. Hain zuzen ere, neurri zuzentzaile horietako bat izan daiteke delako populazioaren arrantza etetea eta populazio hori edo beste batzuk arrantzatzeko aukerak behar beste murriztea arrantzalekuetan.

2021eko azaroaren 4an, Itsasoak Esploratzeko Nazioarteko Batzordeak (IENB), zuhurtasun-irizpidea aplikatuta, gomendatu zuen 2022. urtean aingirarik (Anguilla anguilla) ez harrapatzea ezein habitatetan eta ezein bizi-fasetan, banaketa naturaleko area bakar batean ere ez. Neurri hori aplikatzen zaie bai aisiaidiko harrapaketei, bai merkataritzakoei, eta barnean hartzan ditu birpopulatzeko eta hazteko angula-harrapaketak. Orobata, IENBk onartu zuen gero aske uzteko helburu bakarrarekin arrainak harrapatzea kontserbazio-neurri bat izan daitekeela, baldin eta halako neurriei esker bizirauteko probabilitate orokorra handitzen bada.

Xedapen horien guztiengarbi, Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 30eko 2023/194 (EB) Erregelamenduak Batasunaren uretan arrain-populazio jakin batzuk arrantzatzeko aukerak zehazten ditu 2023rako (2023ko urtarrilaren 31ko EBAO). Erregelamendu horrek ezartzen du ezen, Kontseiluaren 1100/2007 (EE) Erregelamenduarekin bat etorri, angulak birpopulatzea estatu kideek aingira kudeatzeko planetan hautatutako kontserbazio-neurri bat dela; erregelamendu horren arabera, gainera, arrantza mota horren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko, beharrezkoa da baimena ematea angula kantitate bat harrapatzeko beste helburu batzuetarako ere. Hala ere, aingira-populazioaren egoera aintzat hartuta, erregelamendu horrek aingiraren aisiaidiko arrantza debekatu du, baina angularen arrantza profesionala baimendu du, zenbait murrizketa ezarrita.

Xedapen hori garatzeko, eta ikusita Euskal Autonomia Erkidegoan angularen aisiaidiko arrantza bakarrik dagoela araututa –otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuaren bidez–, komeni da araudia Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 30eko 2023/194 (EB) Erregelamendura egokitzea eta angularen arrantza profesionalizatzea erregelamendu horrek ezarritako mugetan eta, betiere, xedapenak egungo lege-ikuspegira egokituta.

Horrek berekin dakar arrantza-agintaritzek neurri egokiak hartzea eta behar diren baliabideak jartzea bermatuta gera dadin angula arrantzatuko dela gaur egun duen egoera biologiko ahula aintzat hartuta; horrenbestez, angularen arrantza profesionala eta mugatua baino ez da arautu behar.

Arau hau Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan xedatutako erregulazio onaren printzipioetara egokituta dago. Hala, premia- eta efikazia-printzipioei dagokienez, araua justifikatua dago, angularen arrantza arduratsua, mugatua eta profesionala bermatzea interes orokorreko delako. Proporcionaltasun-printzipiora egokituta dago, lehen aipatutako premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen duelako. Segurtasun juridikoaren printzipiora egokituta dago, arlo horretan dagoen araudiarekiko koherenzia izateagatik printzipio hori indartzen dela iritzita. Gardentasun-printzipioa dela eta, hori ere betetzen da entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidearen bidez arauaren hartzaleei emandako parte-hartzearengatik. Azkenik, efikazia-printzipiora ere egokituta dagoela ondoriozta daiteke proiektu honek ez duelako ezartzen administrazio-karga erantsirik edo beharrezkoa ez denik.

Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoak barruko uretako arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren arloetan duen eskumen esklusiboaren babesean ematen da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorearen antolamenduaren arloan Estatuaren oinarrizko legeak bere lurrualdean garatzeko eta betearazteko eskumenaren babesean ere, eta Euskal

Autonomia Erkidegoko Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorrita.

Horren ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko XXXaren XX(e)(a)n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu onoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Dekretu honen xedea da angularen arrantza profesionala arautzea, lehorretik zein ontzik egindakoa; 12 zentimetrotik beherako tamaina duten aingira (Anguilla anguilla) gazteak harrapatzeko arrantza arautzea, alegia. Eta, horrekin batera, angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eskumenen esparruan.

2.– Angulak lehorretik arrantzatzeak ahalmena ematen dio arrantzaleari urertzetik oinez arrantzatzeko; angulak ontzik arrantzatzeak, berriz, angulak ontzi barrutik arrantzatzeko ahalmena.

3.– Arauaren helburua da angularen arrantza profesionala eta arduratsua bermatzea, legez ezarritako mugen barruan, merkaturatzearen azken fasera heldu arte.

2. artikulua.– Angularen arrantza profesionalerako lizentzia.

1.– Angularen arrantza profesionala egin ahal izateko, dagokion lizentzia eduki behar da. Lizentzia bakarra izango da Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta arrantzaren arloko eskumena duen zuzendaritzak emango du.

2.– Lizentzia pertsonala eta besterenezina da, eta arro edo eremu jakin bakar baterako emango da; beraz, titulararen jarduna lizentzian adierazitako eremura mugatuko da. Harekin batera, jabea nor den egiaztatzen duen edozein agiri eraman beharko da.

3.– Lizentzia denboraldi baterako emango da, harrapaketen koadernoarekin batera (1. eranskinean dago adierazita haren edukia). Titularak hartutako harrapakinen pisua, erabilitako arrantza-aparailuak eta arrantzaren data eta ordutegia idatzi beharko ditu, eta koadernoa eguneratuta eduki.

4.– Lizentzia profesional aktibo gisa edo profesional pasibo gisa emango da. Profesional aktibotzat hartuko da Gizarte Segurantzako araubidean alta emanda

daukan eta lanaren ondoriozko diru-sarrerak jasotzen dituen eskatzailea, eta profesional pasibotzat joko dira erretiro-pentsioa kobratzen duten lizentzia-eskatzaileak.

3. artikulua.– Lizentziaren titularra izateko eskakizunak.

1.– Angulak lehorretik arrantzatzeko lizentzia eskatzen dutenek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- e) Gutxienez 16 urte izatea.
- f) Gizarte Segurantzako itsas langileen araubide berezian (Itsasoko Gizarte Institutuan) alta emanda egotea, erretiro-pentsioa jasotzen dutenak izan ezik, horiek arrantza profesionala egin ahal izango baitute, baldin eta jarduera horretatik eratorritako diru-sarrerak hileko lanbidearteko gutxieneko soldatu baino handiagoak ez badira.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea.
- h) Jardunean aritzeko behar diren elementuak eta ezagutza nahikoa izatea.

2.– Angulak ontzitik arrantzatzeko lizentzia eskatzen dutenek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- g) Gutxienez 18 urte izatea.
- h) Gizarte Segurantzako itsas langileen araubide berezian (Itsasoko Gizarte Institutuan) alta emanda egotea, erretiro-pentsioa jasotzen dutenak izan ezik, horiek arrantza profesionala egin ahal izango baitute, baldin eta jarduera horretatik eratorritako diru-sarrerak hileko lanbidearteko gutxieneko soldatu baino handiagoak ez badira.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea.
- j) 6. zerrendako edo 3. zerrendako izapideak eginda dauzkan ontzi bat edukitzea.
- k) Ontzia gidatu ahal izateko eskatzen den titulua edukitzea.
- l) Jardunean aritzeko behar diren elementuak eta ezagutza nahikoa izatea.

3.– 2024-2025eko denboralditik aurrera, denboraldi jakin batean lehorreko edo ontziko lizentziaren titular izan direnei, hurrengo urtean lizentziaren titular izan nahi badute, honako hau eskatuko zaie: lizentzia izan zuten urtean, hilean egin beharreko 5 pisaldiak gutxienez egin izana.

4. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Lizentzia eskatu nahi dutenek urte bakotzeko ekainaren 1etik 30era bitartean eskatu beharko dute, biak barne.

2.– Arrantzaren arloko eskumena duen zuzendariari zuzenduko zaizkio eskabideak: II. eranskineko eredu normalizatua (dekreto honen bidez onartua) eta 7. apartatuan adierazitako dokumentazioa.

3.– Pertsona juridikoek elektronikoki aurkeztu beharko dute eskabidea. Pertsona fisikoek aurrez aurre zein elektronikoki aurkez ditzakete eskabideak. Eskabidea izapidezko eta agiriak aurkezteko bide bat edo beste erabiltzeak —aurrez aurre edo elektronikoki— ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzen, edozein momentutan alda baitaiteke aukeratutako bidea.

– Aurrez aurre: Eskabideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin. Eskatzaileak, eskabidea postetxeren batean aurkezten badu, gutun-azal irekian egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten. Eskabidea Zuzenean zerbitzuan aurkezteko, ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua eskatzea hemen: <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean> (gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/cita-previa-zuzenean>).

– Elektronikoki: 3. apartatuan adierazitakoaren arabera.

4.– Eskabideak elektronikoki nahiz aurrez aurre aurkezteko, eskaeretarako inprimaki-eredu normalizatua erabiliko da; eredu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri.

5.– Eskabidea egin osteko izapide elektronikoak hemen egingo dira: euskaraz, <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>; gaztelaniaz, <http://www.euskadi.eus/micarpeta>.

6.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza. Ildo horretan, eta agindu honen esparruan, ordezkaritza egiaztatuta egongo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoan inskribatuta badago (<https://www.euskadi.eus/ordezkariak>). Ordezkaritza erregistro horretan inskribatuta ez badago, honela egiaztatu beharko da: borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatuaren bidez (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko->

[ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/](#)), edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutara.

7.– Eskatzaile guztiak aurkeztu beharko dituzte nortasuna egiaztatzen duen agiria edo IFK, errolda-agiria eta IGIko altaren egiaztagiria. Gainera, ontzitik egindako arrantza-modalitatearen kasuan, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- d) Ontzirako izapideen dokumentazioa, bai eta ontzia gidatzeko eskatzen den titulazioa ere.
- e) Ontzirik badago, arrantza-ontzien 3. zerrendan edo 6. zerrendan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
- f) Ontziko eskifaia-zerrendaren kopia.

8.– NAN/IFK identitatea eta errolda automatikoki egiaztatuko dituzte kudeaketa-zuzendaritzako zerbitzu teknikoek. Hala ere, eskatzaileak berariaz egin dezake egiaztatze horren aurka; baina, orduan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Aurka egite hori ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko da (91/2023 Dekretua, Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

9.– Eskatzaileek beren jarduera gauzatzeko lanpostu finkoak esleitzeko eskatu ahal izango dute; eskaera hori kontuan hartuko da, ahal den guztietan eta gai horretako eskumena duen zuzendaritzak egokitzat jotzen badu.

5. artikulua.– Lizentziengoko muga.

Arrantzaren arloko eskumena duen zuzendariaren ebatzenaren bidez, eta egokitzat jotzen den aholkularitza teknikoa jaso ondoren, harrapaketetan urteko guztizko kupo bat ezarriko da, eta, kupo hori aldi horretan bertan eguneratu daitekeenez, organo berak eman beharko du horretarako ebatzen. Halaber, harrapaketa horiek mugatzeko, zenbait muga ezar daitezke profesional aktiboaren eta pasiboaren lizenziatarako.

6. artikulua.– Lizentziengoko finkatzeko esleipen-irizpideak.

1.– Lizentzia bakoitzeko harrapaketa-kupoa esleitzeko irizpideak hemen daude azalduta.

c) Harrapaketa-kupoaren lehenengo 2/3ak esleitzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

2008tik ordura bitarteko aurreko kanpainetan parte hartzeagatik	2 puntu urteko
2010eko ekitalditik, angula errekuperatzeko kudeaketa-planari datuak ematen laguntza	1 puntu urteko
2005ean jaioak: 11 puntu gehi urte bakoitzeko puntu bat, 1990. urtera arte jaiotakoentzat (urte hori barne).	11 puntu
Angularen sektoreko elkarte adierazgarri bateko kide izatea; elkarte horrek Euskal Autonomia Erkidegoko arro guzietan egon behar du, eta angula berreskuratzeko kudeaketa-planak izan behar ditu.	0,03 puntu eguneko
Sektorean hiru urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten eta jardunean dauden arrantza-sektoreko profesionalak.	10 puntu
Enplegu-eskatzaileen egoeran egotea	10 puntu

d) Gainerako 1/3 zozketa publiko baten bidez esleituko da.

2.– Eskabide kopurua banatu beharreko kupoa baino handiagoa bada eta berdinketarik badago, ordezkaritza txikiena duen sexuaren alde egingo da berdinketa hausteko.

3.– Zenbaketa orokorrari lortutako puntuen % 50 kenduko zaio administrazio-zehapen astun edo oso astun bakoitzeko. Angularen arrantzari loturiko zehapen irmoa izateagatik.

7. artikulua.– Angulak arrantzatzeko lizentziak eta kupoa esleitzeko ebazena.

1.– Arrantzaren arloko eskumena duen zuzendariaren ebazenaren bidez ebatziko dira lizentzia-eskabideak urtero; horretarako, kupoa puntuazioaren arabera esleituko da, handienetik txikienera, aurreko artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta, lizentzien gehieneko kopurura iritsi arte.

2.– Lizentziak honela esleituko dira:

c) Lehenik eta behin, lizentzia guztien 2/3 esleituko dira, puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran, 6. artikuluan definitutako esleipen-irizpideen arabera.

- d) Gainerako lizentziak (1/3) zozketa publiko baten bidez esleituko dira gainerako eskabide guztien artean; arrantzaren arloko eskumena duen zuzendaritzak adierazten dituen bulegoetan egingo da zozketa.

3.– Angula arrantzatzeko lizentziak arrantza-denboraldi bakoitzeko emango dira eta denboraldi horretako balio-dembora izango dute.

4.– Lizentzia ukatzeko ebazpenean, ukatzeko arrazoia adieraziko dira. Lizentzia emateko ebazpenean, informazio hau behintzat jasoko da:

- h) Emandako lizentzia-zenbakia
- i) Arrantza-modalitatea: lehorretikoa edo ontzitikoa
- j) Esleitutako kupoa
- k) Esleitutako arroa
- l) Profesional mota: aktiboa edo pasiboa
- m) Lizentziaren iraupena
- n) Angularen arrantzale profesionalen erregistroko inskripzio-zenbakia

5.– Arroa aldatzeak, aldeko ebazpena eman ondoren, erregistroan baja ematea ekarriko du.

8. artikulua.– Angularen arrantzale profesionalen erregistroa.

1.– Angularen arrantzale profesionalen erregistroa sortzen da. Erregistroa bakarra, publikoa eta doakoa da, administratiboa, eta arrantzaren arloko eskumena duen sailari atxikita dago.

2.– Arrantzaren arloko zuzendaritza eskuduna izango da angularen arrantzale profesionalen erregistroaren arduraduna, eta aipatutako administrazio-organoko langileek jardungo dute harten; izan ere, zuzendaritza horrek kudeatuko du erregistroa prozedura informatikoen bidez. Arrantzaren arloko zuzendaritza eskuduna izango da datuak sartzearen, aldatzearen eta ezereztearen arduradun bakarra, eta zainduko du datuak une oro eguneratuta egon daitezen.

3.– Angularen arrantzale profesionalen erregistroan, denboraldi bakoitzeko ematen diren lizentzia guztiak behintzat inskribatuko dira, eta kasu bakoitzean zehaztuko da lehorretik edo ontzitik arrantzatzeko lizentzia den eta profesional aktibo edo pasibo gisa eman den. Gehienez ere, 150 arrantzale profesional izango dira Euskal Autonomia Erkidego osoan: lehorreko modalitatean 138 eta ontziko modalitatean 12. Arroen arabera, honela banatuko dira:

ARTIBAI	3
BAKIO	2
BUTROE-lehorra	33
BUTROE-ontzia	1
DEBA	33
ABUSU	15
AREETA	4
LEA	5
OKA	3
ORIA-lehorra	34
ORIA-ontzia	7
UROLA-lehorra	6
UROLA-ontzia	4
GUZTIRA	150

4.– Arrantza arloko eskumena duen zuzendaritzako zerbitzu teknikoek ofizioz egingo dute erroldako inskripzioa, aurreko artikuluan aipatutako ebazpena eman ondoren, eta urtebetekoa izango da.

5.– Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera tratatuko da informazio pertsonala.

9. artikulua.– Baimendutako aparailuak.

Angula arrantzatzeko aparailu hauek daude baimenduta:

- c) Angula lehorretik arrantzatzeko, «bahea» deritzon tresna erabiliko da, edozein aldaeratan; gehienez ere 1,8 m²-ko diametroa izango dute behe zirkularrek, eta 1,8 m ardatz nagusian bahe eliptikoek edo angeluzuzenek. Arrantzale bakoitzeko aparailu bakarra dago baimenduta.
- d) Angula ontzik arrantzatzeko, aldi berean eta gehienez ere bi aparailu edo bahe erabili ahal izango dira, ontziko jardueran pertsona bakarra edo bi aritu; gehienez ere 1,8 m²-ko diametroa izango dute bahe zirkularrek, eta 1,8 m ardatz nagusian bahe eliptikoek edo angeluzuzenek.

10. artikulua.– Angula arrantzatzeko gaitutako arroak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, angula-arro hauetan egongo da baimenduta angularen arrantza:

BAKIO	BUTROE
ARTIBAI	DEBA
ABUSU	AREETA
LEA	OKA
ORIA	UROLA

11. artikulua.– Angularen arrantza-denboraldia.

Angularen arrantza-denboraldia bera, denboraldi horren aldaketak edo etendurak arlo horretako zuzendaritza eskudunaren ebatzenaren bidez ezarriko dira, Kantauri itsasoko ertzeko beste autonomia-erkidego batzuekin koordinatuta. Ez da, inolaz ere, araudi komunitarioan xedatutakoaz haratagokoa izango.

12. artikulua.– Harrapaketak kontrolatzea eta pisatzea.

Eguneko harrapakinak banaka pisatuko eta salduko dira arlo horretako zuzendari eskudunaren ebatzenaren bidez baimendutako lehen salmentako puntuetaan.

13. artikulua.– Jarraipen-batzorde bat sortzea, aingira errekuperatzeko prozesuaren bilakaerarako.

1.– Batzorde misto bat sortzen da bai jarraipena egiteko, bai garapena aztertzeko, bai angula errekuperatzeko Europako araudia aplikatzeko; arrantzaren arloko eskumena duen zuzendaritzari atxikitako kide anitzeko organoa izango da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera arautuko da. Batzordeak berak onartuko ditu funtzionamenduko barne-arauak.

2.– Entitate hauek izendatutako lau kidek osatuko dute:

- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean arrantzaren arloko eskumena duen sailaren ordezkari bat.
- f) Euskadin angula errekuperatzeko kudeaketa-plana idazten parte hartu duen teknikarietako bat.
- g) Euskadin ordezkarietako handiena duen elkarte ekologistaren ordezkari bat.
- h) Euskadiko Angula Arrantzaleen Elkartearen ordezkari bat.

2.– Batzorde honen osaeran emakumeen eta gizonen presentziarako kontuan hartu beharko da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aukako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.

3.– Batzordekideak izendatzeko, aintzat hartuko da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan trebakuntza nahikoa izatea.

4.– Batzordekideek hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute beren jarduketetan. Bilera-deiak, gai-zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta, oro har, testu idatziak euskaraz bidali ahal izango dira. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

5.– Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Angularen arrantzari buruzko gaiez eztabaidatzea.
- b) Angularen arrantzari ikuspuntu profesionaletik eragiten dioten gaiei buruz eskatzen zaizkion txostenak egitea.
- c) Angularen arrantzaren arloko eskumena duen administrazioari proposamenak helaraztea eta gomendioak egitea.

14. artikulua.– Interes profesionalak babestea.

Angularen arrantzaren interes profesional eta ekonomikoak babestu eta sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak interes horiek kudeatzeko antolaketa-tresna gisa jardungo duen entitate korporatibo bat eratu ahal izango du.

15. artikulua.– Zehapen-araubidea eta lizentzia baliogabetzea.

Dekretu honetan edo indarrean dagoen gainerako araudian angularen arrantzari buruz araututako arauak betetzen ez badira, martxoaren 13ko 6/1998 Legean xedatutakoaren arabera zehatuko da, eta lizentzia baliogabetu ahal izango da. Interesdunari entzungo zaio aurrez, egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan; baina, nolanahi ere, zehapen-espedienteak ireki ahal izango dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– 2023-2024ko kanpainako eskabideak aurkeztea

Salbuespen gisa, 2023-2024ko kanpainarako eskabideak aurkezteko epea arrantzaren arloko eskumena duen zuzendariaren ebazpenaren bidez zehaztuko da, eta ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Arau-indargabetzea

Angularen Arrantzari buruzko otsailaren 18ko 41/2003 Dekretua indargabetzen da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Betearazi eta garatzeko ahalmenak.

Arrantzaren arloko eskumena duen sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– INDARREAN JARTZEA.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023koaren ... (e)(a)n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA HARRAPAKETEN KOADERNOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

II. ERANSKINA ANGULA ARRANTZATZEKO LIZENTZIA-ESKABIDEA

G) ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak edo sozietatearen izena:

NAN/IFZ	Sexua	
Helbidea	PK	
Lurralde historikoa	Telefona	Herria
elektronikoa	Helbide	

H) ORDEZKARIAREN DATUAK (HALA BADAGOKIO)

Abizenak	Izena	NAN	Telefona
Sexua		Helbide elektronikoa	

I) JAKINARAZPENAK (A ATALEAN JASOTAKOA EZ BADA)

Helbidea	PK
Herria	LH
Helbide elektronikoa	Telefona

J) AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

EAeko administrazio-egoeraren egiaztagiria.

Itsasoko Gizarte Institutuko altaren egiaztagiria.

Ontzirik badago, arrantza-ontzien 3. zerrendan edo 6. zerrendan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

Ontziko eskifaia-zerrendaren fotokopia (ontzitik egindako arrantza bada).

K) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, HAUEK ADIERAZITA:

Jarduera gauzatzeko behar diren elementuak eta ezagutza nahikoa ditu.

Angula-arrantzaleen erroldan sartu nahi du.

Konpromisoa hartzen du angulen salmentak salmenta-oharretan idatzita gera daitezen.

L) ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA

Eskatzaileak deklaratzen du angularen arrantzako profesionala izan nahi duela, eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Sinatzaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du erantzukizunpeko adierazpen honetan adierazitako datuak zehatzak direla eta bat datozen indarrean dauden legeetan ezarritakoarekin, eta, orobat, badaukala hori egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, beraz, Eusko Jaurlartzaren esanetara geratzen dela egokitzat jotzen dituen egiaztapena, kontrola eta ondorengo ikuskapena egiteko.

_____, _____ (e)ko _____ aren
_____ (a)

Eskatzailea edo legezko ordezkaria

Sinadura: _____

Datu-babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartu: Arrantza-sektorearen antolamendua.

Arduraduna: Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

Helburua: Arrantza-baimenak eta -ontziak eta zehapen-espedienteak jendaurrean jasota uztea. Arrantza-ontzidiaren erregistroa; arrantza-produktuen salmenta, ikuskapena eta plangintza.

Legitimazioa: Aplikatzekoak diren lege-betebeharak betetzeko behar den tratamendua.

Hartzaileak: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Nekazaritza eta Arrantzako Estatistika Ofizialen Zerbitzua (SEAS) eta arloko eskumenak dituzten organismoak.

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeako eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001100-cap2-eu.shtml

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

ID: 0011